

**EUSKAL INDAR POLITIKO ALTERNATIBO**

**ETA SOZIALISTA BERRI BAT SORTZEKO**

**GAKO NAGUSIAK**

## AURKIBIDEA

0.-Alternatiba estruktural baten premia larria	3
1.- Egungo sistema/mundua: borrokarako gakoak, eraldaketaren eragileak	8
2.- Alternatiba politikoa Euskal Herrirako	18
3.- Euskal Herriko alternatiba sozialista berriaren ardatzak	26

OHARRA - 'Kapitalismoa' eta 'sistema/mundua' terminoak baliokidetzat erabili ditugu testuan, gauza bera ez badira ere. Kapitalismoaz mintzo bagara, alderdi ekonomikoaz ari gara; sistema/mundua kontzeptuan, berriz, alderdi politikoa, soziala, kulturala... ere sartzen dira. Dena den, gure iritziz, egungo sistema/munduaren oinarria kapitalismoa denez, bata zein bestea erabili ditugu.

## **0.-ALTERNATIBA ESTRUKTURAL BATEN PREMIA LARRIA**

Kapitalismoa eta nazioarteko ordena politikoa ditugu gure planeta honek jasaten dituen egiturazko arazoan (pobrezia, desberdintasuna, ingurumenaren hondamena...) zuzeneko eragileak. Bi mende luze badira 'norberaren irabazi ahalik eta handienaren inperioa' nagusitu zela, eta balantzea erabat ezkorra da: munduko biztanleen ia erdiek pobrezia pairatzen dute; geroz eta handiagoa da herrialde eta jende aberatsen eta pobreen arteko aldea; etengabe urratzen dira gizakien eta herrien oinarrizko eskubideak; eta eredu harrapari horrek eragindako hondamen sistematikoa ez da jada bakarrik politika, ekonomia eta gizarte-alorretan nabaritzen, baita planetaren iraupena bera ere arriskuan jartzen du, atzeraezinezko klima-aldaketa dela medio.

Egoera jasanezin hori ikusirik, bi gauza azpimarratu behar dira: bata, kapitalismoa dela egiturazko egoera horren eragilea; bestea, ezin dugula mundu bidezko eta zuzenago baterantz jo egungo sistemak/munduak giltzarri dituen oinarri eta tresnekin alderantziz ez bada. Honenbestez, bistakoa da gaur egun ez dutela balio indibidualismoak, kapital-metaketa, ahalik eta irabazi gehien izateak, estatu-herritartasunak eta ordezkari politiko zorrozki zeharkakoak ditugun desfioei aurre egiteko. Norberaren interesen gainetik, mundu osoaren ikuspegi orokorra behar dugu, denon eskubideak lehentasun direla; kapital-metaketa eta irabaziaren aurretik, herritarren premiak asetzeari lehentasuna ematen dion egitura eta eredu ekonomikoa behar ditugu; zeharkako ordezkariaren ordezkari, herritarren partaidetza aktiboa eta kalitatezkoa behar dugu, herritartasun unibertsala oinarri harturik ekiteko arazo orokor nagusiei, egitura politiko ahaltsu eta demokratikoetarik... Baina sistemari gauerdiko ahuntzaren ezturen pareko zaizkio lehentasun horiek, bete-betean egiten baitute talka haren euskarriekin.

Beraz, kapitalismoa ez baldin bada gai erabat eta koherentziaz ekiteko berak sortu dituen egiturazko arazoei, *gizateriak bertan behera utzi behar du indarrean dugun sistema hau eta bestelako gizarte-eredu bat proposatu, justizia, berdintasuna, autonomia eta burujabetza printzipioak oinarri dituela*. Lanerako ardatz eta abiapuntu izan behar dute ikuspegi hori egungo egoera aldatu nahi duten gizon-emakume, erakunde eta elkarteek, eta, hala, aldarazi etorkizun hurbilerako atzematen diren joera katastrofistak. Kontua ez da egungo eredu aldatzea, han eta hemen konponketak egitea, oso-osorik egiten baitu huts: goitik behera aldarazi eta bestelako bizitza-eredu batera jo behar dugu, non gizon-emakume eta herri guztien eskubideak indarrean diren, baita naturarenak ere, hori ere zenbait eskubideren jabe dugu eta.

Premisa hori abiapuntu dugula –kapitalismoa da egungo egoeraren eragilea eta alternatiba arras desberdina behar du–, hiru ideia nagusi izan behar ditugu kontuan, lagungarri izan dakizkiguke-eta aldaketa-estrategia zehazteko.

Lehenik eta behin, *azpimarratu behar da ez dagoela zuzeneko loturarik kapitalismoa kentzeko premiaren eta hori nahitaez gertatu beharraren artean*. Ongi aski ikasi dugunez, bizirik irauteko gaitasun aparta du sistemak, kontraesanak gorabehera. Inork uste bazuen izugarrizko pobreziaguneez, desberdintasun gero eta handiagoek edo indarkeriaren hedapenak berez ekarriko zutela aldaketa, oso oker zebilen. Alde horretatik, aski dugu gizateriaren historia aztertzea honetaz ohartzeko: sistema azken hatsa ematen ikustea espero zutenak alferrik egon dira zain. Izan ere, hainbat bide eraginkor aurkitu ditu sistemak bizirik irauteko: iraultza teknologikoak, merkatu-hedapena, faxismoa, kontrol soziala, munduko biztanleen zati bati Ongizate Estatua deritzona ematea... Hortaz, egoera objektiboa kontuan izan beharreko faktoreak dira, baina ez galdera guztien erantzuna. Aitzitik, biziki jorratu ditu sistemak alderdi subjektiboak, eta aldaketa eragotzi. Alderdi horiek laguntzen digute

jakiten gure egoeraren nondik norakoa, nor edo nortzuk diren horren arduradunak, zer egin dezakegun egoera aldatzeko... Laburbilduz: kapitalismoaren amaiera ez da automatikoa izango, ez da berez etorriko; guk geuk eragin behar dugu.

Bigarrenik, are premiazkoagoa zaigu gaur egun sistema aldatzeko borroka, hondamen ekologikoaren zorian gauden honetan, gure planetaren muga naturalak eta fisikoak gainditzeko zorian baikabiltza, giza subjektibotasun guztien gaintik. Berotegi-efektuko gasen emisioak ez badira berehalakoan murrizten, 5° C igo daiteke planetaren tenperatura XXI. mendearen amaiera aldera. Ondorio beldurgarriak ekarriko lizkiguke igoera horrek bai planetari, bai gizateriari. Baina datu larri eta zehatz horrek berak ere ez du, berez, eramango gizateria sistema desagitera. Datuak adierazten digun gauza bakarra da gizateria ere hondoratu egin daitekeela, sistemarekin batera, ez badugu egoera aldarazten. Horregatik, *sakoneko aldaketa behar dugu, eta lehenbailehen.*

Hirugarrenik, jakinik ez dagoela zuzeneko loturarik kapitalismoaren amaieraren eta sozialismoaren eraikuntzaren artean, garrantzi estrategikoa du honetaz ohartzeak: irteerarik gabeko egungo egoera honen ordeztu herritarren gehiengo zabalak onartzen eta bereganatzen duen alternatiba bat sortzen badugu izango du arrakastarik gure proiektuak; bestela, inondik ere ez. Beraz, ez zaigu aski esatea kapitalismoak ez digula balio: alternatiba sozialista erradikala eraiki behar dugu, konstruktiboa eta integratzailea, azken helburuetarantz aurrera egin dezagun. Egungo sistema gainditzeko hainbat proposamen azalduko zaizkigu, bada, baina kontuan izan behar dugu denak ez direla berdinak, guztiak ez direla gehiengoak onartzeko modukoak, edozeinek ez duela balio herritarren partaidetza aktiboa sustatzeko. Hortaz, beharrezkoa dugu antikapitalismoa, baina ez aski; alternatiba eraginkorra eraiki behar da. Hor dago, izan ere, gakoa: *zer alternatiba eraiki asmatzea,*

*esplotazioaren aurkako eta aldaketaren aldeko eragile sozial eta politikoak nola uztartu jakitea, alternatiba zertan datzan zehaztea, haren osagaiak eta subjektuak finkatzea, alternatibaren sarea eta egitura nola sortu eta sendotu (eta zer ikuspegitatik) erabakitzea.*

Hortaz, antikapitalismo guztiak bat datozen arren, oro har, azken helburuetan, galdera horri ematen zaion erantzunak berebiziko garrantzia du helburura iristeko proposamen bakoitzaren ahalmena baloratzeko. Era askotako antikapitalismoak daude, eta ez du zertan egia izan gauza gehiagok elkartzen dituela bereizten baino. Beharbada, egia da egoeraren kritikari dagokionez; baina gizarte berriaz eta hara iristeko estrategiari eta egiturari bagagozkie –horiek dira aldaketa-eragileen ezaugarri nagusiak, azken batean –, aldeak handiagoak dira, batzuetan, adostasunak baino. Oso gogoan izan behar dugu, bada, zenbateraino den garrantzitsua gure alternatiba. Larria da premia; huts egiterik ez daukagu.

Ezkerraren historian, hain zuzen ere, garrantzi izugarria izan du zer alternatiba hautatzen den. Ikusiak ditugu nazionalismo burokratiko bihurtutako antikapitalismoak; epe luzerako helburuak ahazten dituzten antikapitalismoak hauteskundeak direla eta (gehienetan, emaitza txarrak ateratzeko, gainera); antikapitalismo arruntak, giza konplexutasuna eta esplotazioaren/menderatzearen kontzeptuak sinplifikatu eta horien alderdi bakar bat (kapitala-lana harremana) ikusten dutenak eta aldaketa-eragile bakartzat soldatapeko langilea hartzen dutenak, bazterrera utziz baserritarren lana, zaintzaileena, lan ez-formala..., eta balioa kentzen diena gainerako alderdiei (nazioa, generoa, kultura, natura...), guztiak ere estrategikoak gizon-emakumeentzat); edo aldarrikatzen dutenaren (sozialismoa, demokrazia, berdintasuna) eta egiazki egiten dutenaren artean (bertikalismoa, inposizioa, desberdintasuna...) izugarrizko koherentziarik eza duten antikapitalismoak.

Horrenbestez, ez da kontu hutsala alternatiba baten edo bestearen alde egitea; are gehiago, erakunde sozialista ororen giltzarria da.

Laburbilduz, baldintza horiek guztiak –aldaketa gehiengo zabalaren babesarekin eragiteko nahia, datorkigun hondamendiaren larritasunaz jabetzea, proposatzen den alternatiba-motaren garrantziaz ohartzea– dira agiri honen oinarriak. Agiriaren xedea, berriz, hauxe da: Euskal Herrian benetako indar politiko eraldatzaile eta sozialista bat eratzeko eztabaidarako testuetako bat izatea. Beraz, indar politiko horren oinarritzko agiri politikoa eta horri dagokion antolakuntza-egitura eratzeko ideiak eta ardatzak eskaintzea du helburu. Hau da, Euskal Herrian geurea egituratuz, alternatiba globala eratzen lagundu nahi dugu.

Gure iritziz, batetik, ez dago gure herrian horrelako alternatiba politikorik; bestetik, behar-beharrezkoa dugu, eta, hirugarrenik, horren erakuntza jada aipatu ditugun zenbait ardatzen inguruan egin behar da: ikuspegi internazionalista, sistemaren aurkako Europako eta munduko borrokekin lotzeko Euskal Herria; esplotazioaren aurkako borrokak (marxismoa, feminismoa, ekologismoa, internazionalismoa, soberanismoa...) gorputz teoriko-praktiko berean uztartzen dituen joera politikoa; eragile politiko eta estrategikoak biltzeko agenda, eta sustrai demokratiko sakoneko antolakuntza-egitura, proposatzen dituen printzipio eta helburuekin bat datorrena.

Horiek ditu ardatz, bada, testu honen gidoiak. Hasteko, egungo munduaren egoera zertan den aztertuko dugu, eraldatze-estrategia hobeto kokatzeko giltzarria, eragileak eta jarduera-metodologia bilatzeko. Gizateria osoaren borrokekin lotuko ditugu, beraz, Euskal Herrikoak. Bigarren atalean, berriz, Euskal Herriko egoeraz mintzatuko gara, eta aztertuko dugu ideia sozialistako indar politiko berri baten premia; hirugarrenean, azkenik, indar

politiko berri hori zer ardatzen inguruan eratu behar den aztertuko dugu, nazioarteko eta Euskal Herriko egoeren arabera.

## **1.- EGUNGO SISTEMA/MUNDUA: BORROKARAKO GAKOAK, ERALDAKETAREN ERAGILEAK**

Mundu osoan egingo da iraultza, edo ez da egingo. Bere burua sozialistatzat duen indar politiko ororen erantzukizuna da nazioarteko testuingurua ezagutzea, egungo sistema/munduaren ezaugarriak eta joerak menderatzea, hainbat arrazoiengatik: lehena, borroka-estrategia nola proposatu jakiteko, bereziki zeri, nori eta nola ekin argitzeko; bigarrena, munduko eraldatze-prozesuan erakunde bakoitzari zer eginkizun dagokion zehazteko eta tokian tokiko agenda ezberdinekin uztartzeko, norberaren kokapen geografikoaren arabera; hirugarrena, munduan benetako alternatiba (zehatza, unibertsala) eraikitzen ari diren mugimendu eta erakundeekin bat egin eta lotzeko.

Horra zertaz jardungo dugun atal honetan. Egungo sistema/munduaren ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu lehenbizi; ondoren, egoera hori bera aztertuko dugu, baina sistemaren aurkako borrokaren ikuspegitik (nor eta nola diharduten horretan); azkenik, zenbait ondorio aterako ditugu, kontuan izan beharrekoak indar politiko berriak bere estrategia nazioarteko testuingurura egoki dezan.

Hortaz, sistema/munduaren azterketari ekingo diogu lehenbizi. Globalizazio neoliberalerako fasean gaude gaur egun. Asmo politiko argia izan du, hasiera-hasieratik, prozesu horrek: batetik, herrialde aberatsen eta pobreen arteko orekak haustea, lehendik ere aldeak handiak ziren arren; bestetik, jabeen eta jabetzabakoen arteko aldea ere handitzea. Iparraldeko herrietako ongizate-estatua 1970eko hamarkadan jo zuen krisiak; beraz, sistemaren

logikari jarraiki, kapitalismoa biziberritu beharra zegoen, irabazi-tasa nabarmen igoaraziz. Sasoi hartan, bada, telekomunikazio- eta garraio-alorretako aurrerakuntzez baliaturik, egitura ekonomiko berria osatu zen, enpresarien irabaziak handitzeko asmoarekin betiere, ohiko bitartekoak erabiliz: lan-merkatuaren desarautzea, pribatizazioa, ekonomia irekitzea, langileen pobretzea... Hala, bada, hedapen geografikoa ez ezik sektoriala ere izan zuen kapitalismoak, den-dena merkatu bilakatzeko helburuarekin: nekazaritza, zerbitzuak, kultura..., baita bizitza bera ere.

Sistema kudeatzen duen arkitektura ekonomiko horren oinarri nagusia hau da: produkzio eta finantza-kate handiak sortu dira, mundu osokoak, enpresa multinazionalen kontrolpean. Bestalde, kate eta merkatu global horiei buruzko erabakiak ez dituzte hartzen ordezkari-erakundeek ere, baizik eta entitate multilateralek (MME, NMF, MB...), non enpresa handiek izugarritzko eragina duten. Beraz, hona hemen lehenbiziko ezaugarri aipagarria: *garrantzi handiagoa hartu du esparru globalak, sistemaren erreferentzia orokor gisara, estatuetakoa edo tokian tokikoak baino. Bigarren ezaugarria da enpresa multinazionalak eta organismo ekonomiko multilateralak direla eragile estrategiko berriak.*

Kapitalismoaren ohiko jardueraren bertsio berri horrek zenbait ondorio ekarri ditu: boterea eragile estrategikoen eskuetan zentralizatzea eta metatzea; sistemaren erdialdeko eta periferiako herrialdeen arteko etena handitzea, baita jabeen eta ezeukien artekoa ere, eta, azkenik, eragile publiko nahiz pribatuen arteko mendekotasun gero eta handiagoa.

Horixe du, hain justu ere, hirugarren ezaugarri nagusia egungo kapitalismoak: *elkarrekiko mendekotasuna*. Lehen, eragile ekonomikoek lurralde-eremu jakin batean jarduten zuten —nazio-estatuan, non nolabaiteko eragina izaten zuten—, eta eremu horrek finkatzen zituen oinarrizko joko-arauak,

betiere sistemaren barruti orokorrean. Gaur egun, aldiz, mundu-mailan finkatzen dira joko-arauetako asko, produkzio eta finantza-kate askok maila berean dihardute-eta. Beraz, nazioarteko merkatu horien gorabeheren mende daude eragile guztiak, eta ikaragarri hazi da elkarrekiko mendekotasuna, baita bakoitzaren jarduera-ahalmena murriztu ere. Egoera horrek, bestalde, areagotu egiten du ahulezia estrukturala, eragile guztien mendeko baitira denak, ongi arautu gabeko merkatuetan, desberdintasuna, egonezina eta bazterketa gero eta hedatuago direla.

Kapitalismoaren elkar-mendekotasun, irekitze eta hedatze-prozesu horretan gauzatu da *erregionalizazioa* ere, egungo sistema/munduaren laugarren ezaugarria, alegia. Merkatu global bakar bat eraikitze bidean bitarteko urrats gisara, potentzia ekonomiko nagusiek integratioko ekonomikoko eremu propioak sortu eta sortzen dituzte —EB; merkataritza libreko hitzarmenak Amerikan, Asiako hego-ekialdean eta Japonian...—. Funtsezko boteregune bihurtzen dira, hala, eremu horiek, horietan hartzen baitira munduko herri eta herrialde guztiei eragiten dizkieten oinarrizko erabakiak.

Azkeneko ezaugarri horrek eta lehen aipatutako globalizazio-prozesuak zuzenean garamatzate gure azterketa honen boskarren oinarrizko elementurantz: *estatuen ahalmen galera nazioz gaindiko eremuekiko*. Ez gara esaten ari, ezta gutxiagorik ere, estatuek erabakimena erabat galdu dutenik, baina aitortu beharra dago nabarmen mugatuta dituztela eskumenak. Hala eta guztiz ere, garrantzi handia dute estatuek oraindik ere. Alde batetik, sistema ez da bere kasa erregulatzen, eta globalizazio-prozesuarekin aberastutako estatuen babesa —politikoa eta militarra— behar du. Estatu horiek dira, halaber, multinazional handien egoitza. Honenbestez, egungo egoeraren oinarrizko aldagaia da, oraindik ere, inperialismoa. Hala eta guztiz ere, eta oso bestelako zentzuan, estatuek badute oraindik ere politika aktiboak bultzatzeko

ahalmenik, eragin nabarmenarekin eskubideen garapen eta iraupenari dagokienez, jarduera-eremu mugatuagoan bada ere. Beraz, garrantzia galdu dute estatuek, baina ez da desagertu haien eginkizuna.

Jakina, neoliberalismoaren egungo fase hau agertzen duten bost ezaugarri ekonomikoek behar dute eurei egokitutako halako egitura politikokultural bat. Prozesu hirukoitza ari da gertatzen alor horretan: lehenik eta behin, *demokrazia liberal ordezkatzaila jotzen da eredu politiko bakartzat*. Esparru estu horretan jardun behar dute eragile politiko guztiek, hauteskunde-prozesuen bidez, non herritarren partaidetza bakarra hautagai batzuei edo besteei botoa ematea den. Bigarrenik, *partaidetza eskas horretan badute esku-hartzerik enpresa multinazional handiek, haiek kontrolatzen dituzten komunikazio eta kultura bitartekoen bitartez*: batetik, indarrean den ereduaren aldeko botua sustatzen dute; bestetik, informazioa eta balio hedatueneen sinbologia eta haien gaineko prestakuntza kontrolatzen dutenez, sistemari hobekien datozkion balioak bultzatzen dituzte –indibidualismoa, etsipena, alternatibarik eza, aurrerabidea kontsumoan oinarritzea...–. Azkenik, eta hirugarrenik, egoera politikoaren beste ezaugarri bat da *demokrazia izpirik ere ez dagoela nazioz gaindiko egituretan*. Herritarrek ez dituzte hautatzen ordezkariak erakunde horietarako (EBko Kontseilua eta Batzordea, MME, NMF, Merkataritza Libreko Itunak, NBEko programak eta agentziak, eta abar), zeinek munduko populazioaren interesen eta partaidetzatik erabat aparte diharduten. Galarazi egiten zaie herritarrei parte hartzea boteregune globaletan (gero eta garrantzitsuagoak) eta, bakar-bakarrik, estatuetakoa eta tokian tokiko hauteskunde-prozesuetan parte hartzen uzten zaie, merkantzia bihurtu eta sistemaren zerbitzura jarria den informazioaren eraginpean betiere.

Laburbilduz, egungo sistemaren *zortzi ezaugarri* horien baturak inpaktu hau eragiten du, agiriaren hasieran genioenez: bazterketa sozial handiagoa, gehiengo zabalaren esplotazio handiagoa. Langileen lan-kondizioek, adibidez,

okerrera egin dute; emakumezkoen eskubideak etengabe urratzen dira, patriarkatua eta kapitalismoaren ondorio suntsitzaileek bat egitearen eraginez; herriak eta kultura-adierazpen alternatiboak arriskuan daude, homogeneizazio- eta merkantilizazio-prozesuagatik...

Bidegabekeria orokor horrek eragin du, hain zuzen ere, sistemaren aurkako borroka, gehiengo zabalaren eskubide-urraketaren kontrakoan (honekin ekiten diogu, honenbestez, atal honen bigarren zatiari). Lehenik eta behin, kapitalismoa saiatzeko den arren gizartea kontrolatzen, matxintzeko joerak ez dira baretzen, desberdintasunak eta pobrezia gero eta handiagoak baitira. Bigarrenik, sistema ahalguztiduna dirudien arren, baditu bere pitzadurak, alternatiba esperantzagarriak ereiteko arrailak.

1990eko hamarkadan ez bezala –ez zen lortu orduan eraso neoliberalaren aurkako alternatibarik eratzea; salbuespenak: zapatisten matxinada (1994tik aurrera) eta Seattleko goi-bilera (1997) eta gero sortutako ekimenak–, XXI. mendean borroka-prozesu oso garrantzitsuak ari dira sortzen. Sistema/munduaren ezaugarrietara egokitu dira borrokek, gainera, eta ezkerrek betidanik egin izan dituen hutsegiteetatik ikasgaiak atera dira.

Hasteko, *aipatu beharra dago mugimendu sozialen funtsezko eginkizuna, horiek baitira eraldaketaren eragile politiko nagusiak*. Mugimendu horiek (batez ere nekazariak, mugimendu feministak eta indigenak) ikuspegi berriak, erradikalak eta integratzaileak sortu dituzte, egungo egoeraren premiei oso ongi egokituak:

1. *Indarrean dagoen ereduarekiko alternatiba zehatzak sortu dituzte, eta beren agenda propioa garatu, eta erresistentzia hutsetik eta oposizio sistematikotik harago jo dute. Ohartu egin dira mugimendu horiek herritarrek, eraldaketa-prozesuan parte hartzeko, garapen, antolakuntza eta demokrazia-alternatibak bultzatzen dituztela.*

Azken batean, balio eta printzipio berrietan oinarritutako esperientziak sortu dira, eta proiektu bateratu, aniztuna eta indarrean dagoenaren erabat aurkakoa eraikitzeko itxaropena eta kontzientzia ari dira hedatzen. Beraz, aurrera egin dute sozialismoaren eraikuntza-bidean (egungo sistema/munduaren esparru mugatu honetan bada ere), eta alternatiba serioak, bideragarriak, aldarrikatzen dituzte, eredu berri bat egingarria dela erakutsiz. Azpimarratzekoak dira, besteak beste, Vía Campesinaren elikadurako burujabetza-proposamena, kapitalismoak gaur egun bultzatzen duen nekazaritza industrial merkantilizatuari erabat kontrajarria; edo ekonomia feministaren printzipioak, *homo economicus*-aren ikuspegi estu eta irrealetik oso aldentuak; edo zenbait herri indigenaren zuzeneko demokrazia parte-hartzaileko formulak, autonomia eta nortasun kolektiboa bultzatzen dutenak.

2. *Nazioarteko egituraketak sortu eta sendotu dituzte*, sistemari mundu-ikuspegitik aurre egiteko asmoz. Borroketako asko eguneroko jardunetik, eskakizun zehatzetatik, tokian tokikotik sortzen badira ere, bertakoaren eta mundu osokoaren arteko lotura estuaz jabetu egin dira, eta egitura sendoak eraiki dituzte, proiektu bateratuaren euskarri, betiere *behetik eta ezkerretik*. Mugimendu sozial horien esku dago, gaur egun, internazionalismoaren bandera. Mugimendu egituratuak (nekazariak, feminismoak, indigenek...) bide horretan aurrera egiteko gai izan dira, eta sistemaren aurkako gainerako erakundeek eredu bihurtu. Eragile politiko bakoitzaren agenda erkideen arabera, lurralde bakoitzean diharduten egiturak sortzen dira, baina ikuspegi orokorrarekin, eta hausnarketa, produkzio, erresistentzia eta mobilizazio-eremuak abiaraziz, premiazko osagaiak guztiak ere sistemari

alternatiba sozialista kontrajartzeko. Bestetik, Foro Sozialak ere adibide egokia dira, eragile sozial alternatibo horiek guztiak esparru erkide batean biltzen baitituzte, alde horretatik egiteko asko dagoen arren oraindik.

3. *Egitura demokratikoak, horizontalak, arinak sortu dituzte, ezker tradizionalaren bertikalismo, hierarkia eta burokraziari kontrajarririk. Aldeen arteko oreka handiagoa dakarte sare horiek, eta haien autonomia sustatzen dute, betiere muga erkide batzuen barruan. Horren adibide ditugu Emakumeen Mundu Martxa, Vía Campesina eta Biztanleen Nazioarteko Aliantza.*

Baina mugimendu sozialez gain –aipatu ditugunak eta beste zenbait–, kontuan hartu beharrekoak dira zenbait herri eta herrialdetako prozesu politikoak ere. Horietako asko Amerikan ari dira sortzen. Lehenago genioenez, ezin da herrialde bakar batean eraiki sozialismoa, baina estatuek eta populazioak badute oraindik aukerarik eta ahalmenik politika aktibo oso bestelakoak aurkezteko. Hortaz, esparru nazionala eta tokikoa oso egokiak dira garapen eta antolakuntza-alternatibak proposatzeko, erabakiak hartzeko, partaidetza sustatzeko; bestetik, gehiengoaren bizimoduan hobekuntza handiak eragiten dituzten ekimen horiek lagungarri izan daitezke nazioartean aldaketaren aldeko indar-proporzioa sustatzeko, ikuspegi bikoitz honetatik: indarrean den ereduaren aurkako alternatibek erakusketa-efektua eragin dezakete beren lurraldeko herri-sektoreetan, baina beste herri eta sektore batzuentzat ere izan daitezke eredu; bestalde, prozesuaren alde estatu barruan sortzen den mugimendua ere aldaketaren aldeko mundu-egituraren parte bihur daiteke, nazioarteko loturak bilatzen baditu.

Alde horretatik, bestelako alternatiba baten aldeko elementuak dira hauek: pribatizazioaren aurkako ekimenak eta ekonomiaren sektore

estrategikoak guztion zerbitzura jartzearen aldekoak; liberalismoaren ordezkartza-formulak gainditzen dituzten demokrazia-prozesuak; norberaren baliabide eta ahalmenen arabera eraikitzen diren estrategia autonomoak, nazio-estatuaren herritartasun- eta aniztasun-muga estuak gaindituz; edo inperialismoaren aurrean herriaren burujabetza aldarrikatzen duten ekimenak.

Prozesu horien ezaugarriak ere aipatzekoak dira, eta bat datoz mugimendu sozialenekin. Lehenik eta behin, alderdi politiko tradizionalekin loturarik ez duten egitura politikoetatik sortuak dira, erakunde sozial batzuk kontzientzia hartu eta indar politiko berri bat eratu dutelako, edo alderdiekin loturarik ez duten eragile eta erakunde askoren inguruan eratutako mugimenduak dira, lotura-eragile lidergo pertsonalak dituztenak horietako batzuk. Bigarrenik, mugimendu horiek nazioarte-mailan egituratu nahi dute, hori baitute alternatiba egonkorra aurkezteko modu bakarra, betiere prozesuaren heldutasun-maila zein den. Alde horretatik, ALBAn beste balio batzuen oinarrituz integratzeko esperientzia amerikarra funtseko elementua dugu, eta beste era bateko mundu bat sortzeko esparru horien garrantzia erakusten digu.

Beraz, beharrezkoak dira borroka-esperientzia horiek guztiak – mugimendu sozialenak, herri eta taldeenak – aldaketa-prozesua sendotzeko. Nekazarien mugimenduak, emakumeenak, mugimendu indigenak... sortzen dituzten eremuak (eta alternatiba erradikal baten alde diharduten herri eta taldeen esperientziak) izan behar ditu oinarri gizarte alternatiboa eraikitzeko eta era guztietako esplotazio, bazterketa eta zapalkuntza kentzeko *eragile politiko eraldatzaileen egitura handiak*.

Atal hau amaitzeko, zenbait ondorio aterako ditugu, eta, egungo munduaren/sistemaren ezaugarriak eta sozialismoaren aldeko sareak aztertu

ondoren, kontuan izan behar ditugu egungo egoerak eskatzen digun euskal indar politiko bat eratzeko ahaleginean:

1. Kapitalismoaren eraldaketa, azkenean, nazioarteko eremutik etorriko da, horrela baitaude egituratuta sistema eta haren botereguneak gaur egun. Horrela, eta ez beste inola, izango dugu alternatiba sendo eta egonkorra eraikitzeko aukerarik. Beraz, erakunde sozial eta politikoen oinarriko jarduera-printzipiotzat hartu behar dute nazioarteko egiturak sortu eta eratzeko lana.
2. Are garrantzitsuagoa da egituraketa hori eskualdeetan lanean diharduten erakunde sozialistentzat: horietan dagoenez, gaur egun, erabakimenaren zati handi bat, horietan eragin behar dute egitura horiek. Adibidez, ezinbestekoa dugu European erakunde sozialisten egitura sendoa sortzea, proiektu neoliberalari alternatiba orokor eta argiarekin erantzuteko. Aldaketa nahi duten europarrak elkartzeaz gain, erreferentzia izango da alternatiba hori etorkizunean eraldaketaren premia aldarrikatzen dutenentzat, eta nazioarteko egituraketen sendogarri ere bai (Hegoaldean, batez ere) boteregune estrategiko batetik.
3. Estatu bakoitzean egin beharreko lanak (nazio bakoitzekoa edo tokian tokikoa) estrategikoa izaten jarraitzen du erakunde sozialista ororentzat. Barne-politikaren eginkizuna da egungo ereduaren aurkako ekimen zehatzak sortzea, bai garapen ereduari, bai partaidetza eta erabakitze-moduei dagokienez. Hortaz, alternatiba horiek, nahiz eta egungo sisteman/munduan sortuak izan, gai izan daitezke bestelako printzipio batzuetan oinarritutako ereduaren bideragarritasuna frogatzeko, eta, hala, herritarren aldeko jarrera eragiteko proposamen global horrekiko.

Alde horretatik, ez dira nahastu behar sistemaren erreforma eta sistemaren alternatiba, nahiz eta bigarren hori ere egungo esparruan aurkez daitekeen. Honenbestez, estatu, nazio edo tokian tokiko politikek, sozialismoa zuzenki eraikitzen ez badute ere, aldatu egiten dute eraldaketa estrukturalaren aldeko indar-proporzioa.

4. Erakunde politikoek eta mugimendu sozialek (erakunde politikoak dira horiek ere) elkarrekin egin behar dute aurrera alternatiba sozialista berria eraikitzeko bidean. Herrialde bakoitzean bultzatu behar da bi aldeen topaketa, eta horien nazioarteko egituraketa sustatu. Gaur egun, mugimendu sozialak dira gogotsuen dihardutenak sistemaren aurka, baita nazioartean ekimen politiko alternatiboak eta sendoak sortzen ari direnak ere. Dena den, borroka guztiak proposamen bakar batean biltzeko eta koordinatzeko egitura politikoa behar dute. Bestetik, erakunde politikoek jabetu beharra daukate mugimendu sozialen garrantziaz, beren agendetan jarri eta haien jarduera-printzipioak bereganatu: sareko lana, demokrazia parte-hartzailea, egitura horizontalak...
5. Erakunde demokratiko, egokikor eta aniztunen bitartez eraiki behar da alternatiba, *sozialismoa sortzen duten erakundeekin*, baztertutako sektore orori alternatibak eskaintzen dizkietenekin. Halaber, sistema goitik behera aldatu nahi duten eragile politiko guztiak bateratzeko agenda politikoak izan behar dituzte.

## **2.- ALTERNATIBA POLITIKOA EUSKAL HERRIRAKO**

Bigarren atal honetan, Euskal Herriko ezkerren egoera aztertuko dugu lehenbizi, aurreko ataleko ardatzen arabera. Ondoren, alternatiba berri baten premiaz jardungo gara eta, azkenik, zenbait ondorio aterako ditugu, erakunde berriak aintzat har ditzan.

Uste hau dugu abiapuntu: gaur egun, ez dago Euskal Herrian aipatu ditugun baldintzak betetzen dituen batere erakunde politikorik, sistemaren aurkako egungo borroketara egokiturik. Gure herrian ere, zoritxarrez, Europako gainerakoetan bezala, indar politikoak galdu dute sistema kapitalista eraistearen aldeko erakundeek. Sozialdemokraziatik ezkererako erakunde gehienak desagertzen ari dira politika eta hauteskunde-mapatik, eta gizartea mobilizatzeko gaitasuna ere galdu egin dute, eta zer egin ez dakitela dabilta.

Ia borroka-bide bakarra parlamentarioa hautatu izanarekin estu loturik dago egoera hori. Lehendik ere aipatua dugunez, zaila da aldaketa estrukturalaren epe luzeko helburuak eta hauteskunde-prozesuetako unean uneko xedeak elkarrekin uztartzea, baldin eta xede horiek bihurtzen badira azken helburu, eta ez sistema aldatzeko bitarteko. Hauteskundearen jokoan, bestalde, gero eta urriagoa da ezkerren helburuak lortzeko ahalmena:

1. Oraindik ere, eskuin liberal edo kontserbadorearen alternatibatzat ikusten da sozialdemokrazia Europan. Europa immigraziotik gorde nahi duen eskuin 'gogorraren' aldean (immigrazioa balitz bezala eskubide-murrizketaren eragilea, eta ez globalizazio neoliberalak), sozialdemokrazia zenbait zerbitzu eta eskubide sozialen babesle gisara ageri da oraindik ere, irizpide kontserbadoreetatik oso urruti ez dabilen arren.

2. Komunikabideek sustatu eta aldarrikatu egiten dute bipolaritate hori, demokrazia-itxuraren berme bakarra hori baita: aldaketa-itxura ematen du, baina sistemaren oinarriak ukitu gabe. Komunikabideek, bestalde, eragin handia dute herritarren iritzi eta kontzientziaren sorreran, haien bidez jasotzen baitute informazioa biztanle gehienek. Honenbestez, joko bipolar horretan parte hartu beharrean aurkitzen da ezkerre, komunikabideen laguntzarik gabe eta demokrazia liberalaren araupean, kutsu erreformistako ekimenak aurkezteko.

Emaitza bera ekarri du jokabide horrek Italian, Estatu espainiarrean eta Euskal Herrian: erreformista izatera jokatu behar baldin bada, *boto baliagarriaren bidetik jotzen dute herritarrek*, eta aukera sozialdemokrata originalaren alde egiten dute (gainera, komunikabideetan oihartzun handia du aukera horrek). Bikoitza da porrota ezkerrentzat: batetik, ez da lortzen gizarteko gehiengo zabalera iristea; bestetik, nortasuna galtzen da. Hoberenera ere, proposamen sozialdemokrata instituzional baten ezker hegala izatea lortzen da, baina, azkenean, gure hasierako helburuak irentsi egiten ditu proposamen instituzional horrek.

Baina ez gaitezen biktimismoan jauzi: komunikabideak eta gizartean hedatuta dauden balioak gorabehera, zenbait tokitako esperientziek erakusten digutenez gehiengo zabalaren onespina jaso izan dute proposamen batzuek, baita hauteskundeetan ere. Esperientzia horien aurka azaldu izan dira (eta dira) komunikabideak eta indar kontserbadoreak, baina, hala eta guztiz ere, asmatu dute herri xehearekin bat egiten, haien eskubideak babesten eta neoliberalismoari aurre egiten.

Egia da prozesuak ez direla beren testuingurutik atera behar, eta, Amerikako zenbait herrialde pobreren aldean, Europako gizartea oso

desberdina dela (pobrezia-maila txikiagoa, desberdintasun gutxiago, ongizate-estatuaren hondar batzuk bizirik oraindik, neoliberalismoaren onespren handiagoa...). Aldeak alde, ordea, bada European biztanleriaren portzentaia bat ezkerreko aukeretatik batere onartzen ez duena, alderdiekin zuzeneko loturarik ez duena eta nahiagoa dituen beste era batzuetako militantziak.

Honenbestez, ezkerrek indarra galdu izanaren eragile bakarrak ez dira sistema politikoa eta komunikabideak, eta kontuan izan behar da herri xeheri alternatiba sinesgarri, argi eta egituratua aurkezteko ezkerren gaitasunik eza, baita egungo egoerara eta berdintasun, autonomia eta kolektibitate-printzipioetara egokitutako egitura demokratiko eta koherenteak sortzeko ezintasuna ere.

Euskal Herrian dauzkagu, hain justu ere, ezkerreko erakunde tradizionalak eta sistema politikoez utzitako osagai guztiak, eta beste elementu bat: euskal herritarrok gure lurraldetasun-estatus politikoa erabakitzeko eskubidea dela-eta Euskal Herriak eta Estatu espainiarrak elkarrekin duten auzia ez dago konponduta, hots, argitzeke dago Euskal Herria subjektu politiko autonomoa edo estatu espainiarraren mendekoa izan behar duen. Elementu horrek zuzeneko eragina du alternatibaren erakuntzan eta egitura politikoak eratzeko aukeran.

Gatazka horrek konponbide demokratikoa behar du, Euskal Herriak bere etorkizunaz erabaki ahal dezan. Zapalkuntza eta esplotazioaren aurkako borroka aldarrikatzen eta autonomia eta burujabetza-printzipioak defendatzen dituen erakunde orok ekin behar dio gai honi. Lehenago genioenez, agenda politiko berean aldarrikatu behar ditugu erakunde alternatibok klase eta genero-alderdiak, herri eta gizon-emakumeen eskubide kolektibo eta indibidualak, eta naturaren eskubideak, alderdi batzuei besteei baino garrantzi handiagoa eman gabe. Euskal Herriko kasuan, baina, ez da betetzen osotasun

eta osagarritasun hori: '*nortasun nazionala*' faktoreak lehentasuna du agendan eta eztabaida politikoan, eta ezkerreko zenbait erakunderi ere eragiten die horrek.

Hala, bada, Euskal Herriko ezkerrearen mapa politikoak ezaugarri hauek ditu: hauteskunde-prozesuetan atzera geratzen da, ez da gauza proposamen sendo eta erradikalak eratzeko, eta, gainera, euskal gatazkaren lehentasun-bahetik ere igaro behar izaten du. Gatazka horren inguruan erutzen dira, izan ere, agenda, eragile politiko nagusiak eta sor litezkeen antolaketak.

Honenbestez, hiru joera nagusi ditugu Euskal Herriko egungo ezkerrean. Hasteko, jatorri sozialistakoak izan arren *bide parlamentarioa eta instituzionala helburutzat hautatu duten zenbait erakunde ditugu*, nortasun nazional desberdinetakoak. Demokrazia ordezkatzaillearen esparrua onartu egiten dute erakundeok, eta era bateko zein besteko gobernuetan jardutea dute ardatz estrategikoa, politika aurrerakoiagoak bultzatzearen betiere. Helburu nabarmen erreformistak dituzte erakunde horiek, hots, sistemaren kudeaketa sozialagoa proposatzen dute, baina ez dituzte baliatzen erakunde publikoak alternatiba erradikalagoak bultzatzeko (sarritan, beren eragin politiko eskasaz ohartzeak eragindako autozentsuragatik). Hala, etengabeko soka hasten da: indar politiko txikia dutenez erakundeok, onartu egiten dute bigarren mailako izatea, otzandu egiten dira zenbait alorretan (lurraldetasunaren lehentasuna onartzen dute, adibidez). Horrek, berriz, nortasuna galarazten die, eta, ondorioz, eragina gizartean. Ez dira gai antolatutako herri-sektoreak erakartzeko, ezta sistemaren aurkako pertsona edo taldeak ere, ez bakarrik agenda politiko lausoa dutelako, baizik eta egiturak ez dituztelako behar beste demokratikoak (instituzioei begira eginak dituzte, oinarri soziala bultzatzeari baino gehiago). Gainera, ez dute nazioarteko egiturak bultzatzeko batere interesik, alderdi sinbolikoetatik aparte. Beraz, aurreko atalean aztertu ditugun ardatzetatik nahiko urrun daude: Europatik eta nazioartetik at daude;

argitasun politiko eskasa dute; alternatiba erradikalak sortzeko gaitasunik ez daukate (eztabaida politikora eramateko, bederen); mugimendu sozialekin loturarik ez dute; egitura bertikalak dituzte, hierarkikoak eta ez oso demokratikoak...

Bigarrenik, bada Euskal Herriko ezkerrean bestelako erakunderik ere: oinarri antikapitalista du, eta, normalean, ez du parterik hartzen hauteskunde-prozesuetan (noizean behin, bakarrik). Aurrekoak baino irekiago dago mugimendu sozialen ikuspegiei, eta ez du hark bezain egitura hierarkikorik. Alabaina, ez da gai izan gizarte zibil antolatua erakartzeko eta nortasun argi eta sendoko indar politikoa eratzeko. Hauteskundeetan parte hartu izan duenean, erakunde erreformistekin elkartu izan da, zalantza gehiago sortu argibideak baino partaidetzaren zergatiei buruz, eta ez du ezkerreko mezu argirik zabaldu izan. Bestetik, oso gutxi lan egin du, hauteskunde-prozesuetatik kanpo, alternatibak eraikitzen; ekimen isolaturen bat bultzatu du, betiere inertzia-giro nabarmenean. Hauteskundeak helburu politiko nagusi ez dituen arren, ez da gai izan ezkerreko joera garbiari eusteko, eta huts egin du aldaketa-eragile herrikoiak esparru alternatibo bateratura erakartzeko ahaleginean. Eragin politiko eskasa du ezaugarri erakunde-mota horrek.

Hirugarrenik, eta azkenik, bere burua sozialistatzat duen euskal independentismoa dugu. Oinarri sozial dexentea du hirugarren joera honek, eta Euskal Herriko zenbait mugimendu sozialetan dihardu. Dena den, helburu nagusia (bakarra kasik) Euskal Herri independentea eraikitzea du, eta zapalkuntza eta esplotazioaren gainerako alderdiak haren atzetik jartzen ditu. Galdu egin du, beraz, ezkerreko nortasuna, eta aipatutako ardatz estrategikoaren arabera antolatzen ditu agenda eta jarduera politikoa: ez da saiatzen sistemaren aurkako nazioarteko mugimenduekin loturarik izaten (estaturik gabeko herriekiko elkartasun-ekimenak salbu), Euskal Herria baitu esparru geografiko bakartzat; ikuspegi bakarreko agenda politikoa du,

aldarrikatzen duen eraikuntza nazionaletik desagertuak baitira klase-izaera eta gainerako oinarrizko alderdiak, ez baita ohartzen ezinezkoak direla burujabetza eta eraikuntza nazionala ez bada aldatzen egungo mundua/sistema; nabarmen murriztu da, bestalde, mugimendu sozialekiko harremana (azken helburuaren transmisio-uhala huts bihurtu nahi ditu, batere autonomiarik gabeak), eta egiturak ere ez ditu egokitu demokrazia eta horizontaltasun printzipioetara.

Ikusten dugu, bada, ezkerreko joera horietatik bakar batek ere ez duela bereganatu nortasun alternatibo garbirik, sistemaren aurkako euskal eragile politiko eta sozialak elkartzeko ahalmenik eta erabakimenik Europako eta nazioarteko borrokekin uztartzeko Euskal Herrikoak. Aitzitik, lurraldetasunaren gaia du ardatz borrokak: hori da nagusi eztabaida politikoan, eta bazterrera uzten ditu sistemaren aurkako oinarrizko zenbait alderdi. Bestalde, nazioartearekiko beharrezko lotura hori gabe begiratzen zaio Euskal Herriari, ohartu gabe gure herriak ezin duela bere buruaren jabe izan egungo bizimoduaren printzipio, eredu eta egiturak goitik behera aldatu gabe.

Kapitalismoaren aurkako ekimen politiko nagusia ez dute alderdi politikoek bultzatu, baizik eta *euskal mugimendu sozialek*. Mugimenduek eraiki dute beren kasako agenda politika neoliberalen erasoei aurre egiteko, nahiz eta horiei ere eragin dien nortasun-bereizketak eta gaur egun hazten ez, baizik eta moteltzen ari diren mobilizazio sozialak.

*Euskal baserritarren mugimendua*, dena den, gai izan da mobilizazioa antolatzeko elikadura-burujabetza kontzeptuaren inguruan, eta aurre egin dio nekazaritzako industria-ereduari, ito egiten dituelako ustiategi txikiak, ez duelako bermatzen ez kontsumitzaileen osasuna ez ingurumenaren jasangarritasuna, eta enpresa handiei bakarrik egiten dielako mesede. Gainera, nazioartean gehien jardun den euskal eragilea dugu, Vía Campesinaren bidez betiere. Beraz, nahiz eta Euskal Herria herri industrialia izan (eta are

industrialagoa izango da, egungo ereduak irautekotan), funtsezko eragilea da euskal baserritarra, bai eredu alternatiboa aldarrikatzen duelako, bai sozialismoaren aldeko borrokan nazioarteko nekazariak funtsezkoak direlako.

*Mugimendu ekologista* ere lan sendoa ari da egiten, Euskal Herrirako bestelako garapen-ereduak aldarrikatzen: Abiadura Handiko Trenaren, Pasaiaiko Kanpo Portuaren eta Bizkaian Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarraren aurka buru-belarri dihardu. Hiru proiektu horiek ez dute konpontzen merkantzia-garraioaren arazoa (izugarria), eta inpaktu ikaragarria izango dute, bai ingurumenean bai gizartean. Baserritarren mugimenduarekin batera dihardu mugimendu ekologistak zenbait ekimenetan, eta baditu loturak beste erakunde batzuekin Estatu espainiarrean eta Europan.

Azkenik, *herri-mugimendu feminista* ere indartzen ari da, feminismoaren betiko zenbait aldarrikapen direla medio: indarkeria matxistaren aurkako borroka, aborto-eskubidea eta horren kriminalizazioaren aurkako borroka... Bestalde, zenbait proposamen berri ere bereganatzen ari da (globalizazioaren aurkako borroka, elikadura-burujabetza...) eta horien bitartez uztartu da, nazioartean, Emakumeen Mundu Martxarekin (patriarkatuaren eta kapitalismoaren aurkako ekimena).

Laburbilduz, ez dago indar politiko bakar bat ere egungo sistema gainditzeko behar diren ezaugarriekin, tinkoa eta erradikala. Nazioarteko mugimenduek eta prozesu politiko alternatiboek erantzun argia eskatzen dute, sistemaren aurkako proposamen erkide bat antolatzeko eta Europaren proiektu honi (gero eta neoliberalagoa) aurre egiteko. Euskal Herriak parte hartu behar du Europako eta nazioarteko prozesu horretan, baita baitago eremu politikorik (hauteskundeetarako eta hauteskundeetatik kanpo) sistemaren eta kapitalismoaren aurkako euskal eragileak biltzen dituen indar politiko alternatibo batentzat, epe ertain-luzera aldaketa estrukturala

bultzatuko duen erreferentzia erradikal eta integratzailearentzat. Bideragarria ez ezik, beharrezkoa ere bada, beraz, indar politiko hori.

Euskal Herriko egoera politikoa aztertu eta gero, ondorio gisara, erakunde berri horrek izan behar lituzkeen ezaugarriak zehaztuko ditugu:

1. Erakunde berriaren helburua izan behar du egungo sistema/mundua gainditzea, era guztietako zapalkuntza eta esplotazio-moduei aurre egiteko.
2. Euskal gatazka konpontzeak garrantzi estrategikoa izan behar du erakundearen agenda politikoan. Euskal Herria subjektu politiko burujabetzat aldarrikatu behar du, bere etorkizuna erabakitzeko ahalmena duen subjektutzat. Hortaz, soberanismoaren eta erabakitzeko eskubidearen inguruan egin behar dute bat egungo sistema gainditzearen alde diren gizon-emakume eta erakundeek, ikuspegi desberdinekin bada ere. Ezkerreko ikuspegi batetik, defendatzen dugun internazionalismoa estatua duten herriak alboratzea esan nahi du, eta ez aldiz estaturik gabeko herriak, berau lortzeko bitarteko demokratikoen defentsan, hots, autodeterminazioaren defentsan, edozein herri aukeratzen duen status politikoaren gaineratik.
3. Epe luzerako helburuak finkatu behar dira, eta honela neurtu: sortu diren artikulazio politikoak, militantzia sozialistaren hazkundera, adostutako *agenda politikoak*, proposatutako edo garatutako ekimen erradikalak... Hortaz, hauteskundeetako eta erakunde publikoetako partaidetza taktikoa izango da, hau da, helburu horien mesederako bada.

### **3.- EUSKAL HERRIKO ALTERNATIBA SOZIALISTA BERRIAREN ARDATZAK**

Zenbait elementu azalduko ditugu honetan, guztiak ere ezinbestekoak euskal erakunde berriaren antolakuntza-egiturari eta proposamen politikoari eraginkor ekiteko.

Hitzaurrean genioenez, egungo sistema/mundua gainditu beharra dago, nahitaez, justizian, berdintasunean, autonomian eta burujabetzan oinarritutako mundua eraiki nahi badugu. Gainera, premiazkoa aldaketa estruktural hori, gizateriak eta Lurrak berak jasan ditzaketan muga gorenetera iristen ari baikara. Azkenik, sozialismoa eraikitzeko hautatzen dugun bidearen garrantziaz ere hitz egin dugu hasierako atal horretan: asmatu ezean, herriko eragile politiko nagusiak batzen dituen proposamen bat eratu ezean, kapitalismoarekin batera hondora joateko arriskuan gabiltza, edo kapitalismoaren ordeaz beste zapalkuntza eta esplotazio-modu batzuk sortzeko arriskuan.

Ondoren, lehen atalean, egungo mundu/sistemaren ezaugarriak aztertu eta zenbait ondorio logiko atera ditugu egitura ekonomiko eta nazioarteko politika berriari buruz; lehentasuna eman diogu nazioartean agendak eta eremuak eratzeari, aldaketa-prozesuaren osagai estrategikoa baitira, nazio-estatu bakoitzeko eremuan egiten diren borroken aurrean; bestetik, tokian tokiko eta estatuko lana zehaztu dugu, baina, betiere, antolakuntza-eremu zabalagoa gogoan dugula, alternatiba erradikal eta bideragarriak sortuz. Azken urteotako borroka-moduak eta egungo egoerarako duten balioa aztertuta, bestalde, badira inongo proiektu alternatibok bazterrera utzi behar ez dituen oinarritzko eragile politiko batzuk, baldin eta proiektuaren asmoa sistema gainditzea bada: langileak (zentzu zabalean), nekazariak (nekazaritzako langile hutsa baino zerbait gehiago), mugimendu feminista, mugimendu indigena eta mugimendu ekologista. Ikusi dugu, bestalde, egitura

arin, demokratiko eta autonomoek bakarrik dutela gaitasuna kontzientzia kritikoa eta agenda politiko erradikalak uztartzeko, esparru teoriko argia eta integrala baldin badute.

Hirugarren atalean, azkenik, Euskal Herrian indar sozialista berri bat sortzea egokia eta beharrezkoa dela aldarrikatu dugu. Horren arrazoi nagusizat aipatu dugu Euskal Herriko egungo ezkerria ez dela gai zapalkuntza eta esplotazioaren aurkako borroka biltzen dituen proposamen politiko bat garatzeko.

Osagai horiek guztiek eratu behar dute erakunde sozialista berriaren nortasuna, eremu teorikoa, agenda politikoa, estrategia eta taktika. Hona hemen, zehatz azalduta, euskal erakunde berria sortzeko ardatz nagusiak:

**1. Egungo sistema/munduari alternatiba sozialista erradikal bat eraikitzea izan behar du oinarri erakunde berriaren nortasunak**, eta egungo eredia gainditzea behar dute izan azken helburu erakunde berriaren ekimen, prozesu eta egituraketa guztiek. Ez da azken helburutzat jotzen azken lekuan jartzen dena (sarritan, begien bistatik joan egiten zaigu); alderantziz, gure jardueraren printzipio gidarizat beti erabili behar dugunari deitzen diogu '*azken helburua*'. Epe luzerakoak dira, bada, erakunde berriaren helburuak, epe laburreko koiunturalismoak alde batera utzita, eta honela neurtu behar dira: sortu diren artikulazio politikoak, militantzia sozialistaren hazkundera, adostutako agenda politikoak, proposatutako edo garatutako ekimen erradikalak... Hortaz, hauteskundeetako eta erakunde publikoetako partaidetza taktikoa izango da, hau da, helburu horien mesederako bada, betiere kasu bakoitzean aztertu eta gero.

**2. Erakunde berriaren esparru politikoa eratzen duen alternatiba sozialistan sartu behar dira zapalkuntza eta esplotazioaren alderdi guztiak, gorputz teoriko eta programatiko bakar batean.** Ez dugu onartzen zapalkuntza-mota bat gainditzeko aukera gainerako guztiei ere gogotik ekin gabe; ez du horrelako lehentasunik egon behar erakunde sozialista baten agendan. Horregatik, garrantzi bera eman behar zaio alternatibak eratzeari egitura ekonomiko kapitalistari, demokrazia ordezkatzailari, homogeneotasun politiko eta kulturalari, patriarkatuari, garapen-eredu suntsitzaileei... guztiak baitira egungo sistemaren partaide. Beraz, proposamen politikoak elkarrekin uztartu behar ditu marxismoa eta feminismoa, ekologismoa eta internazionalismoa, elikadura-burujabetza eta nazio-aniztasuna. Klase-izaerak funtsezko izaten jarraitzen du –kontzeptu zabalago batean betiere, non sartzen diren zaintza-lanak, lan ez-formalak, nekazarien lana...–, baina genero-alderdiaren, herrien edo naturaren eskubideen maila berean. Laburbilduz, patriarkatuarekin, ezin da iraultzarik egin; kapitalismoarekin, ezin du genero-berdintasunik egon; eredu produktibistekin, ezin da iraultzarik egin; egungo ereduaren oinarriak aldatu gabe, ezin du ingurumen jasangarririk egon; uniformitate kultural eta nazionalarekin, ezin da iraultzarik egin; internazionalismorik gabe edo elkarren aurkari diren klaseekin, ezin da nazio-eraikuntzarik egin.

**3. Alternatiba sozialistak bildu egin behar ditu zapalkuntza eta esplotazioaren aurkako borrokan estrategikoak diren eragile politikoak.**

Aurreko atalean genioenez, egungo sistemaren aurkako alderdi guztiak bereganatzeko, gure proposamen politikoak lehentasuna eman behar dio aldaketaren aldeko eragile nagusien antolakuntzari. Gure iritziz, eragile politikoak ez da bakarrik (hala dioen arren ezker jakin batek, zeinaren iritziz langilea den eragile bakarrik), askotarikoa baizik: *langileria* (lehen aipatutako

zentzu zabalean), nekazari txikiak, patriarkatuaren amaiera aldarrikatzen duten emakumeak eta feministak, egungo garapen-eredua gainditzeko aldarrikatzen duen mugimendu ekologista... Eragile horien agendak eratzea ezinbesteko jarduera dugu, eta zer antolakuntza-egitura osatu erakusteko printzipioa.

**4. Euskal Herria subjektu politiko burujabea da.** Erakundearen ezaugarria da egungo sistema gainditzea, zapalkuntza eta esplotazioaren aurkako borrokamota guztiak bateratzea. Eragile politikoa zer lurralderi dagokion zehaztea ere funtsezkoa da, beraz, gizarteari proposamen demokratiko bat aurkezteko. Gure erakundeak subjektu politikotzat hartzen du Euskal Herria, eta haren burujabetza eta etorkizuna erabakitzeko eskubidea aldarrikatzen ditu. Kontzeptu bi horiekin (soberanismoa eta erabakitzeko eskubidea) bat datozen eragile guztiak biltzea du helburu erakundeak, nahiz eta nazio-nortasun desberdinetakoak izan. Hortaz, Euskal Herria bi estatutan eta hiru zati administratibo ezberdinetan banaturik den entitate sozio-linguistiko eta kulturaltzat ulertu beharra dugu, non propioak eta zilegizkoak zaizkion nortasun nazional ezberdinak uztartzen diren.

**5. Izaera internazionalista nabarmena izan behar du erakunde berriak.** Mundu osoan aldatu behar da egungo sistema, edo ezingo da aldatu, eta borrokak ere mundu osoan antolatu behar dira, sistemaren aldaketa eragin nahi baldin bada. Egungo egoeran, hutsegite izugarria da tokian tokikoari, norberaren estatuko egoerari bakarrik begiratzea, ez baita argi ikusten zer eragile eta egiturari ekin behar zaien. Hortaz, erabateko lehenetasuna eman behar dio erakundeak mundu-mailako esparru alternatiboak sortu eta eratzeari. Horrekin batera, *Europako erakunde sozialisten egitura bat sortzen*

*laguntzea du helburu*, atal honi dagokionez. Funtsezko helburua dugu hori, gaur egun ez baitago Europan eredu neoliberalari ('Lotsaren direktiba', 65 orduen direktiba...) kontrajartzeko erantzun tinko eta alternatiborik, eta ez zaie laguntzen alor horretan izaten ari diren aldaketei (Hegoaldeko herrietan, batez ere). Azken batean, letra larriz idazten den internazionalismoa behar dugu, ez baita aski aldiari aldiko elkartasun-ekimenekin edo horretarako sail berezi bat izatearekin. Aitzitik, munduko herri-sektore guztiei loturik dagoenez gure geroa, nazioarteko agendarekin bateratu beharra daukagu geurea. Beraz, lehenetsuna eman behar dio erakundeak nazioarteari, eta baliabideak, egitura eta ahaleginak erabili Europako eta mundu-mailako egiturak osatzeko.

**6. Feminista izan behar du erakundeak.** Agenda politikoaren lehenetsuen artean izan behar du erakundeak patriarkatua kentzeko borroka. Hortaz, emakumeen eskubide politiko, sozial, ekonomiko, kulturalen... aldeko borroketan proposamenak aurkeztu behar ditu. Bestalde, teoria eta praktika feministaren bahetik igaro behar du ekimen politiko orok, printzipio eta balio oso garrantzitsuak baititu (autonomia, ahalmentzea, aniztasuna...). Baina ez zaigu aski programa feminista edukitzea: erakundeak ere feminista izan behar du, patriarkatua kentzeko borondate politikoa bermatze aldera. Horregatik, *antolakuntza-estrategia feminista* izan behar du erakundeak, eta behar diren neurriak hartu emakumeen partaidetza aktiboa eta kalitatezkoa sustatzeko, erabakimen-postuetara berdintasunez iristeko eta subjektu politiko espezifiko legez dagokien autonomia bultzatzeko.

**7. Ekologista izan behar du erakundeak.** Eredu sozialista ez da bateragarria ondasun naturalak alferrik gastatzearekin; hortaz, naturaren eskubideak aintzat hartu behar ditu proposamen politiko orok. Kapitalismoak proposatzen

duen garapen-ereduaren muga planetaren agortzea bera da, eta Iparrak Hegoarekiko duen nagusitasunean oinarritzen da; hartara, herrialde pobreetako baliabide naturalek eta eskulan merkeak hornitzen dituzte kontsumo-gizartearen premiak. Bere burua ekologistatzat duen erakunde ororen ereduak hazkunde ezkorren aldekoa behar du izan, hori baita planeta salbatu eta merkatu librearen suntsipen-nahiari aurre egiteko bidea. Energiari dagokionez ere aplikatu behar da printzipio hori; izan re, alor horretako diagnostikoa ere negargarria da, eta bistakoa da formula alternatiboak bilatu beharra dagoela. Honenbestez, erakundearen ezaugarrietako bat izan behar du ekologiak, eta egungo garapen-ereduaren ondorio beltzei aurre egiten saiatu behar du. Bestalde, behar diren neurriak hartu behar ditu erakundeak bere jarduerak ingurumen-inpaktu ahalik eta txikiena izan dezan, baita ahalik eta baliabide eta energia gutxien erabiltzeko ere.

**8. Elikadura-burujabetza aldarrikatu behar du erakundeak.** Sarri askotan, nekazarien mugimenduari ez dio behar duen jaramonik egin ezkerak, eta ez da arduratu bere ideia eta programari dagokien landa-garapeneko eredu proposatzeaz. Baina nekazari txikiak aldaketa-eragile funtsezkoak dira gaur egun. Euskal Herriko nekazari-portzentajea (% 2 azpitik) oso txikia den arren, eragile estrategikoa dugu, garapen-eredu ekologikoak eta berdintasunezkoak aldarrikatzen dituzte eta; gainera, nazioarteko antolakuntza dute, *elikadura-burujabetzaren* inguruan. Kontzeptu hori bereganatu egin behar du erakunde berriak, hortik jotzeko ekimen eta estrategiak proposatu, eta hiri/landa-eremua binomioa gorputz programatiko bakar batean bildu.

**9. Egitura erabat demokratikoa izan behar du erakundeak.** Ezinbesteko printzipioa behar du izan aldarrikatzen denaren eta erakundearen barne-

egituraren arteko koherentziak. Izan ere, ezin da gizarte alternatiborik eraiki hori aldarrikatzen duten erakundeak demokratikoak ez badira. Kalitatezko partaidetza sustatu eta bermatzeko egitura bat eraiki behar da, baita erabakiak eta agenda-egituraketak kolektiboak direla ziurtatzeko ere. Horretarako, ahalik eta egiturarik horizontalena adostu behar da, eremu bakoitzaren eskumenak eta eginkizunak argiak dituenak, eta organigraman eliterik sortzea eragozten duena. Kargu-hautaketan, berriz, nahitaez bete behar dira gardentasun, gaitasun-, behin-behinekotasun eta bateraezintasun-printzipioak. Bestalde, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna ere ziurtatu behar da, seigarren ataleko helburuak betetzen direla bermatzeko<sup>1</sup>. Azkenik, *mugimendu sozialekin harremanetan jarduteko berariazko eremu estrukturalak sortu behar dira*, erakundearen eguneroko martxan parte har dezaten.

**10. Berezko helburuak dira militantziaren eraikitzea eta sendotzea.** Militantziaren hazkundera eta sendotzea ezinbesteko baldintza da erakundearen helburua betetzeko (sistema gainditzea), are gehiago gehiago sozial handiarekin egin nahi bada, egitura demokratikoekin eta militanteen partaidetza kontziente, kritiko eta kalitatezkoarekin. Sortzen den egiturak lagundu egin behar du helburu hori lortzen, eta estatutuetan ere berariazko neurriak behar dira militantzia lehenesteko beste partaidetza-modu batzuen gainetik (afiliazioa...).

---

<sup>1</sup> Aldarrikatzen dugun erregenerazio politikoa funtsezkoa da. Besteak beste, horrek zera dakar: ordezkari publiko hala nola barne edo eta politiko ororen eskubide eta betebeharren araudia; gardentasuna; egoera salarial eta laboral ezberdinen kokapen zehatza, zorrotza eta profesionalismoaren aurkakoa; meritu eta ahalmena; euskera; genero berdintasuna; belaunaldien arteko oreka; ziklo potikoen arabera erantzunkizun periodizitatea; erantzunkizunen parekotasun eza eta abar.

**11. Trebakuntzaren eta ikerketaren alde egin behar du, argi eta garbi, erakundeak.** Irizpide politiko argiak dituen eta, gainera, militanteen lana oinarri duen erakunde batek ezinbestekoa du militanteak trebatzea: marxismoa, feminismoa, ekologismoa, nazioarteko egoera... Ongi prestatutako koadroak behar ditugu, kritikoak, militanteek beren eginkizunak beste inoren esku ez uzteko eta egitura benetan demokratikoa bermatzeko. Bestetik, oinarrizko alderdien ikerketarekin sendotu behar du erakundeak bere proposamen politikoa. Erakunde berriaren beste ezaugarrietako bat izan behar du, hain justu ere, eraikuntza teoriko horrek.

Horiek dira, azken batean, erakunde politiko berria eraikitzeko giltzarriak. Ezinbestekoak ditugu atal honetan aipatutako osagai guztiak, eta denak dira nazioarteko eta Euskal Herriko egoerei buruzko hausnarketaren emaitzak.

Bigarren fasean, programa politiko eta antolakuntza-egitura koherente bihurtu behar dira giltzarri horiek. Orain, ordea, argi izan behar dugu zer printzipio eta ardatzen inguruan jardun behar dugun. Une izugarri garrantzitsu batean gaude, eta, lehenago genioenez, huts egiteko eskubiderik ez dugu.